

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa baten funtsezko jarduerak enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak dira, bere negozio- ereduak funtziona dezan. Hots, enpresa baten funtsezko jarduerak enpresaren muina direnez, beti enpresa barruan egin beharrekoak dira. Beraz, ezagutzarekin, negozioaren know how delakoarekin, lotutako guztia ezin da besteen esku utzi. Aurreko teoria gure enpresari aplikatuta, argi dago zein diren gure proiektuaren funtsezko jarduerak, hau da, gure kabuz egitea ezinbestekoak izango diren eginkizuna, gure arrakastaren gakoa izan daitekeelako.

Gure jarduera garrantzitsuenetako bat bezeroarekiko harremana edo arreta da. Hartara, uste dugu egin beharreko horri erreparatzea oso garrantzitsua izango dela enpresaren etorkizuna bideratzeko. Gure iritziz, proiektu honen sortzaileak garen horretan, ezinbestekoa da guk eramatea arlo hau, izan ere, gure enpresa sortu eta proiektuak aurrera egiten duen prozesuan, bezeroen kezka, duda, iradokizun eta abar identifikatzea laguntza handikoa izango baita ondoren gure enpresa hobetu, bezeroen ongizatea bermatu eta arrakasta bermatu ahal izateko. Horrez gain, pentsatzen dugu, gure ideia aurrera ateratzeko enpresaren eta bezeroen harremana zuzena izatea funtsezkoa dela, bezeroei gertutasuna eta babesa emateko.

Ildo beretik, hurrengo eginkizun garrantzitsuena zein guk bermatzea ezinbestekoa iruditzen zaigun, antolakuntza da. Gure kabuz antolatuko ditugu gure proiektuaren zonaldeak, bakoitzean egiten diren ekintzak, ikastaroak eta abar. Iruditzen zaigu, gure indarguneetako bat islatu dezakegula modu honetan, gure enpresa bide egokitik joan ahal izateko, eta arrakasta lortu ahal izateko, gure antolakuntza berritzailea erabilita. Hala eta guztiz ere, guk dena antolatu arren, beste enprekin mantenduko dugu kontaktua, irtentaldiak egin ahal izateko, museotara parke tematikoetara eta abarrera joateko.

Hau guztia esanda, argi dago guretzat funtsezko jarduerak diren hauek gure kabuz eginda, gure enpresak eta honen partaideak ditugun abileziak erabiliz, errazago izango dela gure helburuak lortzea, eta honekin batera enpresa haztea eta arrakastatsua izatera iristea.